



Julio Artetxe Barkin jaunak, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren idazkari nagusi denak,

EGIAZTATZEN DU:

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak, 2021eko urriaren 7an balio osoz egindako bilkuran, honako erabakia hartu zuela:

“EAEKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENA, 2019KOA, BEHIN BETIKO ONARTZEN DUENA

Eztabaida ondoren Osokoak, **aho batez**, honako hau erabaki du:

Lehenengo: EAeko Administrazio Orokorraren Kontuaren Fiskalizazio Txostena, 2019koa, behin betiko onartzea.

Bigarren: Ondorioak dagozkion aldizkari ofizialetan argitara ematea xedatzea, HKEEren 1/88 Legearen 13.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

Eta hala egiaztatzen du Bilkurako lehendakariaren OErakin, Vitoria–Gasteizen 2021eko urriaren 7an, adieraziaz Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 19.5 artikuluari jarraikiz, egiaztagiri hau jaulki dugun unean onartzeko dagoela bilkuraren Akta.

O.E.

BILKURAREN LEHENDAKARIAK

Izp.: Jose Luis Bilbao Eguren

